

Pozoinik bai ala ez?

Koiotea bere harrapakinaren atzetik doa. Halako batean, zast! gainera salto eginez harrapatu egingo du eta mugimendu azkar batez, irensteko prest izango du. Bapojan ondoren, "bazkalondoko patxadan" dagoenean, koiotea bere buruaren kontrola galtzen hasiko da eta giharretan indarririk ez duela, noraezean ibiliko da txokoren batean zerraldo erori eta hil arte. Horixe da irakurle, 1080 izenaz merkaturatzen den konposatu kimikoak, gutxi gorabehera, eragiten duena: harrapakinean gertatzen da pozoina eta harrapariak irenstean, funtzio nagusiei egingo die eraso denbora-tarte laburrean. Hura bere azken otordua izango

Honela ageri ohi da koiotea 1080 izeneko pozoina irentsi aurretik. Eraginkorra denik bederen, ezin da ukatu. EEBBetan polemika piztu da zenbait animalien hazkundera kontrolatzeko erabiltzen den substantzia hori dela medio.



zela jakin gabe hil da beraz, koiotea. EEBBetan polemika bizia piztu da ditxosozko 1080 produktuen inguruan. 1960an plazaratu zen lehen aldiz gehiegi ugaltzen ari ziren animalia espezieak kontrolatzeko. Garai horretan 1080ak beste zenbait espeziegan kalteak sor zitzakeela ikusi zen eta debekatu egin zen produktua erabiltzea. 1985ean aldiz, berriro merkaturatu zen pozoina eta EEBBetako EPA Ingurugiro Agentziak bere eraginkortasuna bermatuta zegoela adierazi zuen. Geroztik, aldekoak eta kontrakoak muturka aritu dira eta berriki, zenbait estatutan debekatu egin dute bere erabilpena.

Oihanik ez, etorkizunik ez

Etorkizunean ez da Brasilen oihanik izango. Horrela uste dute bederen mendeetan bertan bizi, hazi eta lan egiten duten indiarrek eta horixe salatzen irten dira azken hilabeteotan Brasilgo kaleetara. Gobernuak oihanaren ustiapena esku pribatueta utzi nahi du eta horren ondorioa meatzaritzak eta nekazaritzak sarbide erraza eta eroso aurkitu izana da. Horrek jatorrizko biztanleen, hots, indiarren bizimodu erabat aldaraziko du eta horrekin batera, oihanaren itxura. Da-



Brasilgo indiarrek kexu dira etorkizunaren aurrean. Orainaldia ordea, ez da erosoagoa mendeetan oihanean bizi izan direnentzat. Oihanik ez bada, etorkizunik ere ez, nahiz eta batzuk horretaz ohartu ez.

goeneko jarrera horren ondorio suntsigarriak nozitzen hasiak dira. Basoa gero eta azkarrago ari da soiltzen eta jadanik berreskuratzetik izango ez diren landare- eta animalia kopuru handiak galdu direla ohartarazi dute biologoek. Jakina da bestalde, Amazoniako zenbait eskualdetan gertatzen ari diren aldaketa bortitzek eragin zuzena dutela klimaren egituraren eta beraz, arazo indiarrena ezezik guztiona dela azpimarratu dute. Nolanahi ere, lehen mailako ondorioak indiarrek pairatzen dituzte. Sao Paoloko Unibertsitatean egindako ikerketa baten arabera, oihaneko biztanleen erdiak elikagai-eskasiarekin loturiko osasun-arazoak ditu gaur egun.

Non dago Hego Polo?

Dagokion lekuan ez behintzat, edo horrela uste dute zenbaitzuk. Galdera inozoa dirudien

arren, Antartikara joandako geologo-taldeek erantzunaren bila dihardute; horretarako kalkuluak eta tokian tokiko behaketak egiten



Argazkiko "turistak" ezuste handia hartuko luke Hego polo hori ez dela jakingo balu. Nolanahi ere, metro gutxitako gorabehera dago polo geografikoa eta "beste" polo horren artean.

ari dira. Ez dago erabateko adostasunik, baina argazkian ageri den turistak jakin izan balu! Lurraren biraketa-ardatzak Hego hemisferioan gainazala ebakitzen duen puntuari polo geografiko deritzaio. Alabaina, argazkian ikus



dezakezuen “erreferentziarako poloa” baino ez dela ohartarazi dute geologoek. Bata eta bestearen artean, 10 metro inguruko alde dagoela ere uste dute geologoek, baina zein norabidetan? Izan ere, izotz-plakak ez dira egonkorrak eta higitzean berarekin daramate gainean dagoena, baita Hego Poloa dioen kartela ere. Dena dela esan beharra dago arazoa ez dela hil ala biziko arazoa. Geologoek uste dutenez, izotz-plaken higadura neurtzeko zailtasunik ez dago eta horrelaxe egin izan da orain arte. Azken neurketak egiteko esaterako, sateliteen bidezko sistemak erabili zituzten. Datu horiek ezagututa, norbaitek bere gain hartu beharko al luke mugarrira urtero-urtero lekuz aldatzeko ardura?

Bilera-ordua, ez besterik

Hiru urte inguru eman dituzte zuhaitzetan pausatzen diren hegaztien portaera aztertzen. Lanaren zatirik garrantzitsuena gaez egin behar izan dute. Izan ere, taldeak osatuz pausatzen diren hegaztiekin ilunpean zer egiten duten aztertu nahi zuten. Eginbidea ez da erraza izan, baina itxura guztien arabera, biologoen artean nahikoa hedatuta dagoen ustea baieztatu



Zuhaitzetan pausaturik, beleak gau parteko “parranda” talde osoaren onerako erabiltzen du. Izan ere, janaria non dagoen elkarri adierazteko elkartu ohi dira beleak, biologo-talde batek berriki frogatu duenez.

terik izan da; eta horrek merezi du ahalegina.

Corvus corax beleak taldeka elkartu ohi dira gaez. Biologoek uste zuten, une horretan janari-iturrien berri ematen diote elkarri, horrela talde osoaren biziraupena bermatzen dutelarik. Eta ustea baino ez zena, baieztatu berri du biologo-talde setatsuak.

Ikusitakoaren arabera, beleak hildako animalien arrastoaren bila abiatzen dira egunez eta zerbait aurkitu orduko, taldekideek erraz bereizten dituzten zeinuak erabiliz ohartarazten ditu. Aurkikuntza egin duenak talde-buru gisa jokatu du hortik aurrera. Informazioa trukatu behar badute beraz, gau parteko “bilera” topaleku ezinordea dira eta horrelaxe egiten dutela baieztatu da jadanik. Horra hor, hiru urtetako lanaren emaitza.

Ezin hitz egin

Jakina denez, txinpantzeek ez dute hitz egiten, baina ezintasun horren zergatia oraindik argitzeke dago. Eboluzioan gizakiondik hurbilen dugun ahaideari barrea aztertuz, hitz egiteko gaitasun-ezaren zergatia aurkitu nahi izan dute eta ondorioztatu dutenez, arazo fisiologikoak direla medio, primateak ezin du berba egin. EEBBetako psikologo batek metodo berezia erabili du txinpantzea hitz egiteko gauza ez dela frogatzeko. Txinpantzeari kilimak egitean, jolas-aurpegia jartzeaz gain, nolabaiteko soinuak ahoskatzen dituela ohartu zen. Gero, primatearen barrea gizakiarekin alderatu zuen eta honako ondoriara heldu da: txinpantzeak barre-soinu bat egiten du ar-

nasaldi bakoitzeko eta gizakiak aldiz, “ha, ha, ha” algara tipikoa arnasaldi bakarrean egin dezake.

Guretzat barrearen eta hitz egiteko gaitasun ezaren arteko lotura zein den ez dago garbi, baina psikologoak berehala uztartu zituen bi ekintzak: txinpantzea ez da arnasketa eta ahoskera koordinatzeko gauza. Hitz egiteko ustean, txinpantzeak ez du arnasketan parte hartzen duten diafragma eta zenbait gihar behar bezala menperatzerik eta beraz, horixe litzateke gure ahaideek duten ezintasunaren zergatia.

Primate barreagarri horiekin berrikeran aritzetik ez dugu izango oraingoz behintzat, baina dirudienek ikertzaileek arrakasta izan dute txinpantzei zeinu-sistema bat erakutsi dietenean. Beraz, hitz egiteko gauza ez direnez, elkar ulertzeko moduko zeinu-sistemaren bat aurkitu beharko dugu komunikatu ahal izateko.



Txinpantzea ez omen da hitz egiteko gai. Mintzatu ezinaren atzean arrazoi fisiologikoak ezkutatu egin dira eta ez adimen-arazoak. Bere barrea aztertu ondoren, arnasaldiak eta ahoskera koordinatzeko zailtasunak dituela ohartu dira ikertzaileak.

